



2026ko urtarrila-apirila / enero-abril **2026**

**Javier Muñecas
Herreras**



**EGABeko presidentea
Presidente del CES Vasco**

Duela denbora gutxi aurkeztu dugu Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen 2025eko Jardueren Txostena, ezinbesteko gardentasun ariketa, eta, gainera, erakunde horrek EAEko erakunde sarearen barruan betetzen duen eginkizun handia balioesten lagundu behar duena. Beharrezkoa den gardentasunaz gain, lau hilean behin jasoko duzun **informazio-buletin berri** honek EGABri buruzko ezagutza, betiere herritar guztientzako funtsezko gaietan oinarrituta dagoen gure jarduera, eta irizpen-lana hobetzen lagundu nahi du.

En fechas recientes hemos presentado la Memoria de Actividad 2025 del Consejo Económico y Social Vasco, un imprescindible ejercicio de transparencia que además debe contribuir a poner en valor la alta función que esta institución desempeña dentro del entramado institucional de la CAE. Además de la necesaria transparencia, este **nuevo boletín informativo**, que recibirás con periodicidad cuatrimestral, quiere contribuir a mejorar el conocimiento del CES, de nuestra labor centrada siempre en cuestiones clave para toda la ciudadanía.





2025eko Jardueren Txostena

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2025eko Jardueren Txostena argitaratu berri du. Iaz, gizarte-garrantzi handiko dekretu-proiektuei buruzko 17 irizpen eman genituen. Bestek beste, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzei, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei (GLL), seme-alabak dituzten familientzako laguntzei edo bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeari buruzko dekretuei buruzkoa.

[\[Jarraitu irakurtzen ->\]](#)

Memoria de actividad 2025

El Consejo Económico y Social Vasco ha publicado recientemente su Memoria de Actividades 2025. El pasado año emitimos un total de 17 dictámenes sobre proyectos de decreto de hondo calado social. Entre otros, sobre los decretos relativos a ayudas a las mujeres víctimas de violencia de género, Ayudas de Emergencia Social - AES, ayudas a las familias con hijas e hijos o a la conciliación de la vida personal, familiar y laboral.

[\[Seguir leyendo ->\]](#)

Jarduera instituzionala / Actividad institucional



Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak harreman- eta partaidetza-bideak sustatzeko, beren jardueren elkar ezagutzea bultzatzeko eta elkarri laguntza emateko lankidetzahitzarmena sinatu dute datozen lau urteetarako, dagozkien zereginetan baliozko informazioa eta ikuspegi garrantzitsuak txertatzeko xedez.

[\[Jarraitu irakurtzen ->\]](#)

La Autoridad Vasca de la Competencia (LEA/AVC) y el Consejo Económico y Social Vasco, han suscrito un convenio de colaboración para los próximos cuatro años, con el objetivo de promover cauces de relación y participación, que permitan impulsar el conocimiento mutuo de sus actividades y prestarse ayuda recíproca en aras de incorporar información de valor y perspectivas relevantes a sus respectivos cometidos.

[\[Seguir leyendo ->\]](#)



Abian da 2025eko Memoria Socioekonomikoa

Euskal Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen 2025eko Memoria Sozioekonomikoa –erakunde honen funtsezko lanetako bat– garapen fasean dago bete-betean, datorren ekainaren 30ean onartu ahal izateko. Erredakzio batzordeak hiru bilera egin ditu dagoeneko –urtarrilaren 21ean, martxoaren 24an eta apirilaren 24an–, eta horietan 2025ean Euskadiren errealitate ekonomikoa eta soziala sakon ulertzeko funtsezko argitalpen horren hainbat kapitulu definitu dira.

[\[Jarraitu irakurtzen ->\]](#)

En marcha la Memoria Socioeconómica 2025

La elaboración de la Memoria Socioeconómica 2025 del CES Vasco — uno de los trabajos fundamentales de esta institución— se encuentra en plena fase de desarrollo con el objetivo de que pueda ser aprobada el próximo día 30 de junio. La comisión redactora ya ha celebrado tres reuniones –21 de enero, 24 de marzo y 24 de abril–, en las que se han definido varios capítulos de esta publicación esencial para comprender en profundidad la realidad económica y social de Euskadi durante 2025.

[\[Seguir leyendo ->\]](#)



Euskadiko EGABek bat egin du "Eman tokia berdintasunari" kanpainarekin

"Emakumeen Nazioarteko Eguna" dela eta, Euskadiko EGABek bat egin zuen Emakunde *"Eman tokia berdintasunari. Emakumeen eskubideak esparru guztietara zabaltzen jarrai dezagun"* lelopean bultzatu duen kanpainarekin. Aurten beste pauso bat eman dugu, Gatazkak eta Jazarpenak Prebenitzeko eta Horiei Aurre Egiteko Protokoloa onartuta, eta lan ingurune seguruekin, errespetuzkoekin eta emakumeenganako edozein diskriminazio edo indarkeria motatatik libre daudenekin dugun konpromisoa indartu dugu.

[\[Jarraitu irakurtzen ->\]](#)

El CES Vasco se suma a la campaña "Dale espacio a la igualdad"

Con motivo de la celebración del "Día Internacional de las Mujeres", el CES Vasco se sumó a la campaña impulsada por Emakunde bajo el lema *"Dale espacio a la igualdad. Sigamos ganando terreno para los derechos de las mujeres en todos los ámbitos"*. Este año hemos dado un nuevo paso con la aprobación del Protocolo de Prevención y Actuación frente a los Conflictos y Acosos, reforzando nuestro compromiso con entornos de trabajo seguros, respetuosos y libres de cualquier forma de discriminación o violencia hacia las mujeres.

[\[Seguir leyendo ->\]](#)



Ekonomiaz aldizkariaren beste zenbaki bat

Javier Muñecas Euskadiko EGABeko presidentea eta Jon Barrutia Memoria Sozioekonomikoaren Batzordeko

Nuevo número de la revista Ekonomiaz

Javier Muñecas, presidente del CES Vasco y Jon Barrutia, presidente de la Comisión de la Memoria

presidentea eta Ekonomiaz aldizkariko erredakzio-kontseiluko kidea, azken zenbakiaren aurkezpenean izan ziren. Mikel Torres, Eusko Jaurlearitzako Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua izan zen jardunaldiaren buru. Azken zenbaki honetan, enpleguaren kalitatea ekonomia kohesionatuago eta jasangarriagorako oinarri gisa ardatz duten goi-mailako hainbat artikulua eta gogoeta biltzen dira.

[\[Jarraitu irakurtzen ->\]](#)

Socioeconómica y miembro del consejo de redacción de la revista Ekonomiaz, asistieron a la presentación del último número, una jornada presidida por el Consejero de Economía, Trabajo y Empleo del Gobierno Vasco, Mikel Torres. Este último número reúne diversos artículos y reflexiones de alto nivel centrados en la calidad del empleo como base para una economía más cohesionada y sostenible.

[\[Seguir leyendo ->\]](#)



EBk munduko testuinguru berrian betetzen duen lekuari buruzko mintegia

Javier Muñecas Euskadiko EGABeko presidentea eta Izaskun Astondoa idazkari nagusiak Espainiako CESEk eta Yusteko Akademia Europarra eta Iberoamerikarra Fundazioak antolatutako "Europar Batasuna munduko testuinguru berrian. Lehiakortasuna hobetzea gizarte-ereduan aurrera eginez" mintegian hartu zuten parte apirilaren 8an eta 9an. Besteak beste, lehiakortasuna eta Europako gizarte-eredua landu ziren bertan, bai eta berrikuntza eta garapen teknologikoa, gizarte-eskubideen babesa edo estatuen arteko lankidetzaren ere.

Seminario sobre la UE en el nuevo contexto mundial

El presidente del CES vasco, Javier Muñecas y la secretaria general, Izaskun Astondoa, participaron los días 8 y 9 de abril en el seminario "La Unión Europea en el nuevo contexto mundial. Mejorar la competitividad avanzando en el modelo social", organizado por el CES de España y la Fundación Academia Europea e Iberoamericana de Yuste. Se abordaron entre otros temas, la competitividad y el modelo social europeo, así como la innovación y el desarrollo tecnológico, la protección de los derechos sociales o la cooperación entre estados.





Euskadiko EGAB eta Akitania Berriko CESER erakundeek lankidetzak esparrua indartzen dute

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazaetarako Batzordeak Akitania Berriko Ekonomia, Gizarte eta Ingurumen Kontseiluaren (CESER) ordezkari bat hartuko du hilaren 29an, Bilbon duen egoitzan. Jardunaldi batean parte hartu zuten, mugaz gaindiko lankidetzak zientzia, teknologia eta berrikuntzaren arloan duen garrantzia aztertzeko. Foroa Javier Muñecas Euskadiko EGABeko presidentek eta Yves Jean Akitania Berriko CESEReko presidentek inauguratu zuten. Topaketa bi erakundeek duela bi hamarkada baino gehiagotik bi lurraldeen erronka komunei heltzeko duten alde biko lankidetzak akordioaren esparruan egin da.

El CES Vasco y el CESER de Nueva Aquitania refuerzan su marco de colaboración

El Consejo Económico y Social Vasco recibió el 29 de abril, en su sede de Bilbao, a una delegación del Consejo Económico, Social y Medioambiental (CESER) de Nueva Aquitania. Participaron en una jornada para analizar la importancia de la colaboración transfronteriza en materia de ciencia, tecnología e innovación. El foro fue inaugurado por Javier Muñecas, presidente del CES Vasco e Yves Jean, presidente del CESER de Nueva Aquitania. Este encuentro se produce en el marco del acuerdo de cooperación bilateral que ambas instituciones mantienen desde hace más de dos décadas para abordar desafíos comunes a ambos territorios.



Sare Transnazonal Atlantikoaren (STA-RTA) bilera

Reunión de la Red Transnacional Atlántica (RTA)

Javier Muñecas Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko presidentea eta Izaskun Astondoa idazkari nagusia Sare Transnazional Atlantikoaren (STA) bileran izan ziren joan den urtarrilean Rouenen (Frantzia). Sarea Atlantikoko Espazioaren barruko gizarte zibilaren lankidetzeta-plataforma da, eta bilerak erronka demografikoa eta migrazioak izan zituen ardatz.


[\[Jarraitu irakurtzen ->\]](#)

El presidente del Consejo Económico y Social Vasco, Javier Muñecas y la Secretaria General, Izaskun Astondoa asistieron el pasado mes de enero, en la localidad francesa de Rouen, a la reunión de la Red Transnacional Atlántica (RTA) –plataforma de cooperación de la sociedad civil dentro del Espacio Atlántico– que se centró en el reto demográfico y las migraciones.

[\[Seguir leyendo ->\]](#)



Irizpenak / Dictámenes



Bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak arautzen dituen dekretu-proiektua.

[\[Irizpena ->\]](#)

Proyecto de Decreto por el que se regulan las ayudas para la conciliación de la vida personal, familiar y laboral



[\[Dictamen ->\]](#)

Seme-alabak dituzten familientzako laguntzei buruzko dekretu-proiektua

[\[Irizpena ->\]](#)

Proyecto de Decreto de ayudas a las familias con hijos o hijas

[\[Dictamen ->\]](#)



LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta enplegu-agentzien artean bitartekaritza- eta enplegu-zerbitzua emateko irekitako akordioak arautzen dituen dekretu-proiektua.

[\[Irizpena ->\]](#)

Proyecto de Decreto por el que se regulan los acuerdos abiertos entre LANBIDE-Servicio Público Vasco de Empleo y agencias de colocación para la

prestación del servicio de intermediación y colocación.



[Dictamen ->]

Euskadiko Turismo Mahaiaren funtzionamenduetarako antolaketa-araubideari buruzko dekretu-proiektua

[Irizpena ->]

Proyecto de Decreto de régimen de funcionamiento y organización de la Mesa de turismo de Euskadi

[Dictamen ->]



Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana - Euskadi 2030 (birformulazioa)

[Irizpena ->]

Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación - Euskadi 2030 (reformulación)


[Dictamen ->]

Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen duen dekretu-proiektua.

[Irizpena ->]

Proyecto de Decreto por el que se regulan los programas y servicios relacionados con la empleabilidad de las personas con discapacidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el Registro Vasco de Centros Especiales de Empleo.

[Dictamen ->]



Maiatzak 13
**Costa Ricako ordezkari-
publiko-pribatu baten bisita**
Euskadiko EGABera

13 Mayo
Visita al CES Vasco de una
delegación público-privada
de Costa Rica

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruz

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren erakunde aholku-emailea da, Euskal Autonomia Erkidegoko politika ekonomiko eta sozialean interes ekonomikoek eta sozialek duten parte-hartzea eraginkorra izan dadin. Bere izaeraren arabera, eginkizun hauek dagozkie, besteak beste: Eusko Jaurlaritzaren ekonomia- eta gizarte-politikaren arloko arau-proiektuei eta plan orokorreari buruzko nahitaezko txostenak prestatzea, eta Eusko Jaurlaritzari gai horri buruzko proposamenak egitea.

Sobre el Consejo Económico y Social Vasco

El CES Vasco constituye el ente consultivo del Gobierno Vasco y del Parlamento Vasco, para hacer efectiva la participación de los distintos intereses económicos y sociales en la política económica y social del País Vasco. De acuerdo con su naturaleza le corresponden, entre otras funciones, la de informar con carácter preceptivo los proyectos normativos y planes generales del Gobierno Vasco en materia de política económica y social, y la de formular propuestas al Gobierno Vasco sobre dicha materia.



Kale Nagusia 81 - 7 / 48011 Bilbo

Gran Vía 81 - 7 / 48011 Bilbao

+34 944 792 150

cesegab@cesegab.com

Mezu hauek jasotzeko modua aldatu nahi al duzu?

Zure lehentasunak aldatu edo [harpidetza bertan behera utz dezakezu](#).

¿Desea cambiar la forma de recibir los mensajes?

Puedes modificar tus preferencias o [cancelar tu suscripción](#).

EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAK, zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna den aldetik, jakinarazten dizu, Datuen Babesari buruzko 2016ko apirilaren 27ko Erregelamendu Orokorrean ezarritakoarekin bat etorritik, zure datu pertsonalak biltzen eta tratatzen dituela erregelamendu horretan ezarritako neurri teknikoak eta antolaketakoak aplikatuz, arduradunarekin lotzen zaituen harremana kudeatzeko, eta, halaber, mota guztietako komunikazioak zuri igorri ahal izateko, horretarako ezarritako bideetatik. Datuen titularrak zaren aldetik, tratamendu horretarako adostasuna adierazi eta baimena ematen duzu. Eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke, mugatzeko, lekualdatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzu, eta horretarako arduradunarengana jo beharko duzu. Helbidea: KALE NAGUSIA 81, 7. SOLAIRUA, BILBO, 48011, BIZKAIA